

Zumaia

In: Martínez Kleiser, Luis: *La villa de Villagrana de Zumaya*, Asociación de Comerciantes "Elkar", Zumaia, 1983: V-XI.

Ezagunak dira Espainiako erregeek Euskalerriko herrien jatorrizko izenei erantsitako nagusikeria batzu: *Orio*, Villarreal de San Nicolás de Orio izendatua izan zen; *Bergara*, Villanueva; *Deba*, Monreal; *Hondarribia*, Fuente Rabia; *Ordizia*, Villafranca de Oria; *Elgoibar*, Villamayor de Marquina; *Oiarso* (gero Errenteria), Villanueva de Oiarso, eta *Usurbil*, Belmonte de Usúrbil, beste askoren artean; baina Zumaia erantsitakoa berria egin zait: Villagrana. Zumaia berriak emateko Luis Martínez Kleiser jaunak idatzi zuen liburuak izen hau darama: *La Villa de Villagrana de Zumaya*.

Madriren 1923an izenburu honekin inprimatua izan zen liburua oso da interesgarria.

Zumaiarrak orain berrinprimatua ikusi nahi izateraino.

Gure herriko gizon handi batek egin zion hitzaurrea, Carmelo de Echegaray historigileak; honen anaia, Bonifacio, legegizon, euskaltzale eta idazle ospetsua, zumaiarra zen sortzez; baina zaharragoa zen Carmelo, azpeitiarra, eta gero Zumaia gurasoekin etorria, eta hala ere hemengo ere sentitzen zen, bertan hasia izan zelako, eta batez ere honen aita eta bi anaia Arritokietako hilerrian ehortziak izan zirelako. Goren du Carmelo Echegaraik egilea eta honek udaleko eta San Pedro parrokiako agiriak ongi aztertu eta maitekorki egindako lan zehatza ere; ikertzaile eta historigile ospetsua Carmelo bera, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Diputazioak aho batez Hiru Probintzietako Kronista izendatua izan zena, ba daki aurrekoek egindakoak eskertzen, eta Serapio Mujicak Gipuzkoako Diputazioaren aginduz herrietan egin zituen klasifikatzen lan zuzeneri esker izan zen Martínez Kleiser jauna liburu eder hau uda batean tajutzeko gauza.

Gero hainbestean jarrai izan bagendu!

Luis Martínez Kleiser-ek Zumaia artxiboez diona bera da jakingarria: paper asko galduko zen hemen (eta Euskalerrian non nahi), 1669 arte ez baitziren agiriak, paperak, artxibo publiko batetan gordetzen; eskribauak bereak bezala, familiar, gordetzeko ohitura zuen, eta pixken bat zahartzen, horitzen, hasten zirenean, zakarretara sutara botatzen zituen, beste hondakinekin batera; honetxegatik ez da Zumaian, eta berdintsu gertatuko da bestetan, 1669 arteko berri idatzirik ezagutzen; salbuespen pare bat ba da hala ere: 1292an idatzia izan zen "privilegio rodado" deritzan agiri nagusi bat, eta 1391an Enrike IIIak emana izan zen fundazioko karta; hemendik datorkio gero harmarrian geratzen joan zen: "Noble y Leal Grana Villa de Zumaya".

Inork ez zekien hitz arrotz horrek zer esan nahi zuen; Grana Villa atzekoz-aurrera jarri eta Villagrana geratu, eta hemendik aurrera egileak berak Grana hau nondik ote datorren jakiteko asmaketak egin behar ditu.

Baina ba dira argi ageri diren gauzak ere.

Zumaia izena. Urola eta Narrondo ibaiak aurkitzen diren paduran ugari aurkitzen zen zumeak emandakotik datorkio noski. Herrien izenak ere euskaldunen deiturekin gertatzen den lege berez sortu baitira askotan. Deitura honetako sendia, Zumaia izeneko famili ganboarra, bizi zen herri honetako jauregian. Baina jauregia gerokoa da; XIIIgarren hasiera arte, Santa Klara ermitatxoa besterik ez baitzen hemen; gero, 1282an, jaso zuten Monastegi ederra. Orreagako monastegiari donatua izan zena.

Martínez Kleiser-ek dionez, hemen ez zen XIVgo hasieran monastegi hau besterik.

Inguru hauetan bizi ziren familiak beste kostaldeko herrietan gerta ohi den legez, piratek egiten zituzten gaiztakeriengandik ihesi mendiruntz jotzen zuten; Zumaia inguruakoak. Aizarnazabal aldeko baserri eta etxeetara igo ziren; gero eraiki zituzten harresi edo murrailak, eta horien babesean bildu ziren ordurarte sakabanatuta bizi ziren familiak. Garai hartan sortu ziren "villa"ak; egile batzu diotenez, garai hartako banderizoen egiten zituzten gehiegikerietatik babes bila, hara Ignazio Arozenaren iritzia; ba da besterik ere, Caro Barojak dionez, garai hartako joera hau Europa guztira zabaldua zegoen, eta ez zen Euskalerrian banderizoen eraginez gertatzen zen zerbait bakarrik; nola nahi, Arozenak esaten digu zergatik eta non eraikitzen ziren murraila barruko "villa" horiek: lurralde baten defentsarako, batetik, eta gehienetan muga politikoetan edo itsasbazter eta ibai-haranetan.

Ba zen orduan ere borroka franko gure herrian.

Eta gure artean.

Urrutiko erregearen laguntza eske geu joaten ginen askotan; kasu honetan. Seaz-ko gizonak izan ziren Alfonso XIri Karta Puebla eskatzera joan zirenak, eta honek Zumaiari 1385go uztailak 4 zituela eman; "bere zerbitzurako", noski; eta aipa berri dugun "Villagrana" eranskin xeblearekin, Santxo Azkarrak Donostiakoa sortzeko eman zuen Fuero beraz sortua izan zen Zumaiako "villa", eta honera Valladolid-etik etorritako agiria Santxo Mudarra batek idatzia dator, gure jatorriko batek polito egina, baina Gaztelako erregearen izenean.

Gure arteko haserreak eta kanpotarren aginteak ez dira, bada, gaurkoak.

Biharkoak hala ez balira, hor nonbait!

XVIgarren gizaldian, sei kale zituen harresi barruko herriak: *Txikia*, edo Torrebarrungoa, denetara hamaika etxe; *Nagusia*, etxe bat gehiagokoa, hamabikoa; *Arezkokalea*, izena berak esaten digu nolakoa zen, zazpi etxekoa; *Joan Bilo*, elizaren apiriko aurretik hasi eta San Juan plazaruntz, hogeita bat etxez osatua; beste bat hamar etxekoa zena, eta egileak dionez. Eleizkale, Erkale eta Txerrotxokale izenez ezagutu izan dena, Martínez Kleiser-ek liburu hau idatzi zuanean, *San Pedro* deitzen ziotena; eta seigarrena, *Kaleberria*, *Mari kalea* ere deitua izan zena.

Murrailaz kanpo, berriz, piratei eta lapurrei beldurrik gabe jasotzen joan ziren hiru auzo ba ziren XIVgarren gizaldi hartan: Odieta, Eizagirre eta Zubiaurre.

Zumaia asko hazi da geroztik, noski; 1600an murraila barruko (70) eta murraila kanpoko (66) 136 etxeak, 208 ba ziren liburu hau 1923an argitaratu zenerako, eta baserriak kontatu gabe. Egileak beste xehetasun asko ematen dizkigu herriak. Euskalerriko beste hainbatek bezala, mugakide ziren Deba, Getaria, Seaz eta Oikina-koekin izan zituen istiluak kontaktzen. Lehenengokoarekin izan zuen auzia, Iruñeko Eliz-azuzitegira lehendabizi eta gero Erromaraino luzatu zen 1391an; Getariarekin izandakoa,

Zumaiako ibai eta kanalaren agindu-barrutia eta eskubidea izan zen auzi gai, eta azkenean, 1416an izenpetu zuten agiriarekin adiskidetu ziren bi udalak; baina borroka handi eta luzeena senidarteko ziren Seaz eta Oikina-rekin izan zuen Zumaiak: Errege Katolikoetaraino joan ziren erabaki bila, eta horiek Zumaiaren alde erabaki zuten 1486an Tordesillas-en izenpetutako agiri baten bitartez.

Ikasi behar dugu hau betirako: geu joan gara herritik kanpora gure arteko borroken erabaki bila.

Ez gaitezen inoiz gehiago harrapagailu horretan eror.

Ematen dizkigu egileak, aspaldiko Zumaya hartan bizi zirenen deiturak: 108 kontatzen ditu. Zumaya izenekoa da buru, noski, edo beste deituraz. Ganboa, Gipuzkoako hogeita lau Ahaide Nagusien arteko bat; denetara ehun pasatxoak ziren baina maizen agertzen direnak: Agirre, Alzolaras, Aranza, Arbeztain, Areizti, Arteaga, Arrieta, Arriola, Azpide, Bastida, Dornutegi, Echave, Elcano, Elorriaga, Gurmendi, Izuna, Labayen, Larragibel, Marruondo, Ondarra, Orio, Sasiola, Torre (De la), Ubillos, Uzcurregi, Zornoza eta Zugasti.

Hauek dira egileak maiztasuna neurri dela bereizten dituen XVI.go Zumaiako deiturak.

Ematen digu, bestalde, 1574ean zikiroaren libra bat haragik zenbat balio zuen: 15,50 marabedi, edo zilarrezko erreal bi; behiarenak, 9,50; urdaiak, 25 marabedi, eta kandelagintzarako bilgor edo zihoak, berriz, erreal bat, 7 marabedi.

Beste berri jakingarri asko ematen dizkigu: herriko Parrokia noiz eta nola eraikia eta berritua izan zen; zer aberastasun zituen, eta nork eskainitakoak izan ziren; hilerria nolakoa zen: eliza barrutian 144 hilobi zituen, eta inguruan, baina itxia hau ere, eta nola elizak honetarako zuen koltxoi baten gainean hilak ehortzera eramaten zituzten; apaizak hobi komuna omen zuten, elizbarrutian bertan. Zumaiako erlojua sonatua zen, eta baita organoa ere; koroa Parrokiari 1530ean erantsi zitzaionez gero, pentsa daiteke organoa, eta seguraski erlojua ere, urte berean tokituak iran zirela. Organoari dagokionez, 1616an zaharra omen zen jadanik, eta 1679an nahitaezko lan bat egin behar izan zitzaion, aurrerakoan Zumaiako meza nagusitan entzungo bazen; organoak ba ziren Espainiako hiri handietan XIIIgarren gizaldiaz gero, baina honetan Zumaiako herritxoak meriturik ba du; hala ere, erlojua izateak bereizten du herria gehien: ba dirudi Espainiako lehenengo erlojuak Barcelona eta Sevillako katedraletan jarriak izan zirela XIVgarren gizaldiaren azken hamar urtetan; hemendik zabaldu ziren gainontzeko katedraletara XVgarrenean, eta garai honetan bertan lortu zuten bere Parroki ederrera zumaiarrak berea; 1600erako zahartua zegoen, eta Tolosako, edo Zestuako edo Markinako erlojeroak etortzen ziren konponketak egitera; harrizko pisuak gora eta behera, 1777 arte iraun zuen, Azpeitiko eta etorri eta aldaketa batzuekin zizkion arte, horien artean: "pendola reala" eta kuerda doblea.

Hirurogeita zortzi urte gero, 1845an, berri batengatik aldatu zuten arte.

Behar zuen erreleboa eta eman zioten.

Martínez Kleiser jaunak maite zituen erlojuak eta kanpaiak, eta min du bere denboran museo batetan gordeta ez egotea; geuk ere pozik ikusiko genituzke gaur, hirurogei urte geroago.

Berri hauek eta gehiago ematen dizkigu Zumaiako kronista zehatz honek. Ba da hemen geuk, berritargiratzen ari garen une honetan, gizon honen lana eta asmoa goraiatzekorik. Herriko seme batek ez zuen lan eder hau hobeto egingo, ezta maitasun gehiagorekin ere. Gure herri honetan etorkinez ari garenean ahaztu egiten gara hemen jaio ez denak ere senti daitezkeela gure arazoak, berea bezalaxe. Adibide franko ba da alderdi honetatik. Ba ditugu Aymeric Picaud-en antzeko gaizkiesaleak ere, noski, baina gehiago ditugu bestela jokatu dutenak. Hara Victor Hugo, Pierre Loti, Francis Jammes, Edmund Rostand, Humboldt, Claude G. Bowers, George Steer, Waldo Frank, M. Janet, Agustin Thierry, Le Play, Bonaparte eta Lichnowsky Printzeak, Bourgoing, Alexandre Laborde, Cembowski, ezagunenak bakarrik aipatzeko.

Gutxi izango dira gure herriaren alde Arturo Campion-ek baino gehiago egin duenik, eta ba dakigu nor den: Napoleonekin gerrara etorritako ofizial baten semea.

Agurtzekoa da, eta herriko ongileen artean toki berezia irabazi duena, Luis Martínez Kleiser jauna.

Martín Ugalde
Hondarribian, 1983go azaroa